

## **MOZIO ARRUNTA,**

### **Harri Berri-Oleta ikastetxearen ondoko partzelan egin beharreko lanak direla eta**

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Harri Berri-Oleta ikastetxearen ondoko partzelan egin beharreko lanak direla eta.

## **JUSTIFIKAZIOA**

2024ko otsailaren 29an Donostiako Udalbatzak ondorengo eskakizunak egin zizkion Udal Gobernuari:

- “Harri Berri-Oleta ikastetxeari itsatsita dagoen partzela egokitzeko proiektua aurrera eramateko, eskolari sarbidea bertatik eman ahal izateko, ikastetxearen ingurua seguruago eta atseginago bilakatuz.
- Partzela egokitzeko obrak hasteko beharrezkoak diren baimenak lor ditzan, Jaurlaritzari behar bestetan eskaria luzatuz.”

Lehenago ere Udalbatzan landu den gaia da Altzako ikastetxeari itsatsita dagoen partzela moldatzeko beharra, bertatik eskolari sarrera berri bat eman eta ingurua lasaiagoa eta atseginagoa egiteko, ikasleen sartu-irteerak seguruago eginez. Inguruaren eraldaketarekin amaitzeko gelditzen den azken urratsa da honakoa, kiroldegi berriaren eta eskolaren atzeko bidearen lanek asko aldatu baitute auzunea. Ordea, proiektuak aurrera egin ahala, aipagai dugun partzelari dagozkion lanak alde batera gelditu ziren, bertan eginiko katen arabera, inguruko gainerako lurretan bezala, amiantoa topatu baitzen.

Hori horrela, jakin badakigu lanekin aurrera egiteko beharrezkoa dela Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren baimena, kutsaduraren ezaugarri berezia dela eta. Otsaileko kontrol mozioaren harira jakinarazi zitzaigun Udal Gobernuak saiakerak eginak zituela baimen hori eskuratzeko. Ordea, argi dagoena da ikasturte amaiera den honetan oraindik ere Ingurumeneko baimenaren, eta beraz, Altzan amaitzeke diren lanen berririk ez dela. Ez genuke nahi ikasturte berria urratsik eman gabe hasterik.

Horrexegatik, prozesua azeleratu dadin eskatzen dugu, Altzako ikastetxeak eta inguruak behar duen eraldaketarekin amaitu, eta espazio atsegin bilakatu dadin behingoz eskolako erabiltzaile diren familientzat eta inguruko auzotarrentzat.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

### MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari eta bere Ingurumen Sailari Harri Berri-Oleta ikastetxeari itsatsita den partzelako lanekin aurrera egin ahal izateko beharrezko baimena eman dezan.

Donostian, 2024ko ekainaren 6an

Juan Karlos Izagirre Hortelano  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea